

## Hiztegitxo


Hobeto irakurtzen laguntzeko




<b>adabaki</b> txaplata, oihal puska	Aulkiaren gainean azti-kapela puntazorrotz bat ipini zuen. Kapela hura <b>adabakiz</b> josita, higiturik eta oso zikina zegoen.	108
<b>adarbakoitz</b> adarakarra, unikornioa	Ez ditugu bi makila berdinak, bi <b>adarbakoitz</b> , bi herensuge edo bi fenix berdin-berdinak ez diren bezalaxe.	80
<b>adaxka</b> adar txikia	...pentsatzen dut zuk eta anaiek <b>adaxkaz</b> adaxka joan beharko duzuela aurrezten eta osatzen...	150
<b>ahaide</b> senidea	Umeago zenean, behin eta berriro amets egin zuen <b>ahaide</b> ezezagunen bat zetorrela bera handik eramatera, baina ametsa ez zen inoiz bete...	32
<b>aharrausi egin</b> aho-zabalka ibili (logura, gosea)	<b>Aharrausi egin</b> eta buelta eman zuen. Ez zuen beraiengan inolako eraginik izango...	13
<b>ahi</b> orea, krema ( <i>papilla</i> )	Aurpegia semaforoak baino bizkorrago pasatu zitzaion gorritik berdera. Eta ez zitzaion hala gelditu. Berehala zuen zuri grisaxka, olo- <b>ahi</b> zaharra bezala.	36
<b>ahopetik esan</b> xuxurlaka, isilean mintzatu	—Ez! — <b>esan</b> zion Harryk <b>ahopetik</b> —. Badakit hemendik nonbait dela.	189
<b>aiene</b> kexa, erosta, kexuzko oihua	Hori entzutean, Nevilleri <b>aiene</b> txiki bat atera zitzaion, eta Malfoy kolpean geratu zen.	225
<b>aingira</b> sugearen antzeko arraina	Erakusleihu batzuetan saguzar-barez eta <b>aingira</b> -begiz beteriko upelak zeuden...	69
<b>aldarte</b> umorea, jarrera	<b>Aldarte</b> onean zegoen. Jakina, hark uste zuen inor ez zela ausartuko ekaitz bete-betean hara joaten posta eramatera.	45
<b>algaraka</b> karkaraka	Behin eta berriro amesten zuen gurasoak argi-distira berde batean desagertzen zirela ahots bat kar-kar barre- <b>algaraka</b> entzuten zuen bitartean.	194
<b>alor</b> lursaila, arloa	Soroak eta <b>alor</b> landuak desagertuak ziren. Orain basoak ageri ziren, ibaiak sigi-saga eta muino berde ilunak.	96
<b>amorrarazi</b> sumindu, haserre jarri	Ez nazazu <b>amorrarazi</b> , Peeves; ea nora joan dira?	145
<b>anker</b> krudela, bihozgabea	...eta beste zerbait ere gogoratu zuen, bere bizitzan lehen aldiz... barre-algara ozen, hotz eta <b>anker</b> bat.	55
<b>antzara</b> hegazti igeri egiteko oinduna	Roni jarraitu zion erretratu-zuloan aurrera, <b>antzara</b> amorratuak bezala txistu eginez.	141
<b>antzarrak ferratzera joan</b> pikutara joan	—Zoazte <b>antzarrak ferratzera</b> , biok gainera! —esan zien Hagridek—.	51
<b>apatx</b> apoa, animalien behatza	<b>Apatx</b> -hotsa entzun zuen atzean, trostan, eta zerbaitek irudi haren gainera salto egin eta eraso egin zion.	232
<b>arakatu</b> ikertu, miatu	Harryk soinekoaren sakelak <b>arakatu</b> eta txokolatezko igel bat atera zuen, Hermionek Eguberrietan emandako kaxan zegoen azken-azkena.	196
<b>arauzko</b> reglamentarioa	Labur esanda, handiegia zirudien <b>arauzkoa</b> izateko eta hain basatia...	19
<b>arnasestuka</b> arnas hartze larrian, hatsanka	Baina gela hutsik zegoen. <b>Arnasestuka</b> , pixkanaka ispilurantz jiratu zen berriro.	187
<b>arre</b> grisa, kolore lohia edo iluna	Ur <b>arreetan</b> igerian zebiltzan trapu zikinez-edo beta zirudien ontziak.	34
<b>artaburu</b> ergela, kaikua, kokoloa	—Uste dut <b>artaburu</b> horrekin ondo pasatzea espero duzula, ezta? Ba, pentsa ezazu berriro mutiko...	225
<b>asaldatuta</b> aztoratu, urduritu	Biharamun goizean, gosaltzerakoan, mutu zeuden guztiak. Dudley <b>asaldatuta</b> zegoen. Garrasi egin, aita Smeltingseko makilaz jo...	39
<b>atarramentu</b> probetxua, etekina	besterik ez nuen espero nik, beti jakin izan nuen ez zutela <b>atarramentu</b> onik izango...	56
<b>atasale</b> ataria, sarrera	Gizon erraldoi bat agertu zen <b>atalasean</b> .	47




<b>atezango</b> janba, atea jartzeko egitura	... <b>atezangoan</b> biratu eta korridore batean aurrera joan ziren trostan...	144
<b>atsekabetu</b> goibeldu	...batetik, izututa zegoen, Harry ohetik kanpo hiru gau segidan hor zehar ibili zelako (Filtchek harrapatu izan bazintu!), eta bestetik, <b>atsekabetua</b> ...	194
<b>atximurka</b> imurtxika, piltxika egin	Gure oturuntza hasi aurretik, bizpahiru hitz esan nahi dizkizuet. Eta hona hemen: Memelo! Koipetsu! Gauzaki! <b>Atximurka!</b> Eskerrik asko!	113
<b>atzapar</b> erpea (animalia harrapakariena)	Ispilu bikaina zen, sabairainokoa, urre-koloreko marko apainduarekin, <b>atzaparren</b> tankerako bi oinarriren gainean jarrita.	187
<b>azkenburuko</b> postreak	Unetxo bat geroago <b>azkenburukoak</b> agertu ziren. Imajina daitezkeen zapore guztietako izozkiak, sagar-tartak, melaza-tartak, txokolatzeko tximistak...	115
<b>azkonar</b> ugaztun haragijalea ( <i>tejón</i> )	...eta han armarrri bat: lehoia, arranoa, <b>azkonarra</b> eta sugea zeuden “H” hizki handi bat inguratuz.	36
<b>azti</b> belagilea, magoa	Baina haiek ere gu bezalakoak izango ziren, ezta? — <b>Aztia</b> eta sorgina ziren, bai, hori esan nahi baduzu.	75
<b>aztikeria</b> magia	...hirurak elkarrekin egoten ziren, gauean berandu arte lanean, edabe zailtako gaiak osagaiak gogoratzen, sorginkeria eta <b>aztikeriak</b> buruz ikasten...	222
<b>aztoramen</b> asaldura, nahasmendua, istilua	—Zu ikusia zaitut lehenago ere! —esan zion Harryk, <b>aztoramen</b> hartan Dedalus Diggleri kapela erori zitzaionalarik—.	67
<b>baldar</b> traketsa, dorpea	Bere semeetako azkena eta gazteena seinatu zion. Garaia, argala eta <b>baldar</b> samara zen, oreztaz bete, esku eta hanka handikoa eta sudur luzekoa.	87
<b>balentria</b> ekintza gogoangarria, heroiena	Mundu guztiak espero du ni besteak bezain ona izatea, baina lortzen badut ere, ez da <b>balentria</b> handia izango, besteak egin dutelako lehenago.	93
<b>bapo berdinduta egon</b> ondo janda, aseta	—Ejem... orain, denok <b>bapo berdinduta gaudenez</b> gero, beste hitz batzuk bakarrik.	116
<b>bare</b> sabeleko organoa ( <i>bazo</i> )	Erakusleihu batzuetan saguzar- <b>barez</b> eta aingira-begiz beteriko upelak zeuden...	69
<b>begi-leiar</b> begi lentea	Ehun bat iratxo zeuden (...), liburukoteetan zirriborroak egiten, letoizko balantzan txanponak pisatzen, begi- <b>leiarrez</b> harribitxiak ateratzen.	70
<b>behaztopaka</b> tupust eginez, estropozo eginez	Irristaka eta <b>behaztopaka</b> , bide-zidor estu eta aldapatsu batean gora jarraitu zioten Hagridi.	103
<b>beirazko arasa</b> bitrina	Oraindik ez zeuden han Malfoy eta Crabbe. Garaikurren <b>beirazko arasek</b> dir-dira egiten zuten ilargiak argizatzen zituen guneetan.	143
<b>bekoki</b> kopeta	Arreta handiz so egin zion Harryri, honek <b>bekokian</b> ubelduta zeukan orbainetik begirik kendu gabe.	232
<b>belus</b> terziopeloa	Begira zegozkien begi guztiekin topo ez egiteko, batez ere, Harryk gora begiratu eta <b>belusezko</b> sabai beltza ikusi zuen, izarreztatua.	108
<b>berant</b> berandu, belu	<b>Berant</b> arratsaldeko eguzkia zero-ertzean behean zegoen; Harry eta Hagrid itzuli egin ziren Diagon kalekkan aurrera...	81
<b>besaburu</b> sorbaldia, besagaina	Hagridek <b>besaburuak</b> astintzen zituen, McGonagall andereñoak begiak kliskatzen zituen atsekabez...	20
<b>bezoar</b> ahuntz errailetako harritxo bat	—Proba dezagun berriro. Potter, non begiratuko zenuke <b>bezoar</b> bat aurkitzeko esango banizu?	126
<b>bidezidor</b> bidexka, basabidea, lasterbidea	Irristaka eta behaztopaka, <b>bidezidor</b> estu eta aldapatsu batean gora jarraitu zion Hagridi.	103
<b>biraoaka</b> madarikazioka, hitz latzak esat	Eta Peevesen hotsa entzun zuten ziztu bizian joaten eta Filch amorrus <b>biraoaka</b> .	146
<b>bisuts</b> haizea eta euria	Itsasosko <b>bisuts</b> eta euri jelatua sartzen zitzaien lepotik behera eta haize hotz-hotzak jotzen zituen aurpegian.	44
<b>borla</b> hari multzo txirikordatua	Beste batean, Dudleyren jertse zahar nazkagarri bat (marroia, laranja koloreko <b>borlekin</b> ) Harryri indarrez jartzen saiatu zen izeba Petunia.	27




<b>botagura</b> goragalea, oka egiteko gogoa	Komun-zulo gaixo horrek sekula ez du izan zure burua bezain gauza higuinarririk bertan... <b>botagura</b> sortuko zaio agian...	34
<b>burusi</b> manta	...kapatik gutun bat atera, Harryren <b>burusi</b> artean sartu eta gero beste biengana itzuli zen.	20
<b>daratulu</b> zulagailua ( <i>traladro</i> )	Dursley jauna Grunnings izeneko enpresa bateko zuzendaria zen: <b>daratuluak</b> egiten zituen.	7
<b>desenkusa</b> aitzakia, ezin egina azalpenak	<b>Desenkusak</b> , aitzakiak eta dena estaltzeko istorio zentzugabeak zebiltzan biraka Harryren buruan, guztiak ere bata bestea baina ahulagoak.	219
<b>destaina</b> mespretxua, erdeinua	—Dumbledore maisiak baietz esan du —esan zion <b>destainaz</b> , bere ustez Dumbledore maisua ohartuko ez balitz bezala...	273
<b>dirdirka</b> distiratsu, diz-diz egiten	Gizon zahar bat zeukan aurrean, begi zabal zurbilak ilargiak bezala <b>dirdirka</b> zituela dendako iluntasunean.	78
<b>dohain</b> berezko gaitasuna, bertutea	McGonagall andereñoak bezalaxe, esfortzurik gabe ikasleak isil edukitzeko <b>dohaina</b> zeukan Snapek.	125
<b>eban</b> zuen (bizk)	—Zergaitik egingo <b>eban</b> Snapek horrelako zerbait?	173
<b>edabe</b> edari nahasia, sendatzeko-edo	Ron, Hermione eta hirurak elkarrekin egoten ziren, gauean berandu arte lanean, <b>edabe</b> zailtako gaiak osagaiak gogoratzen...	222
<b>egonarritsu</b> eroopen handikoa, pazientziatzko	Agian Hufflepuff-en egongo zara, non zuzen eta leialak baitira, Hufflepuff-eko <b>egonarritsu</b> horiek ez dira ez lanaren beldur...	109
<b>erregosi</b> frijitu	Hagrid, zabaldu daiteke leiho bat? <b>Erregosten</b> ari naiz.	210
<b>errezel</b> oihalezko pieza, gortina	...lehenengo ontziak labarrera iritsi zirenean; guztiek burua makurtu zuten, eta ontzitxoek huntzezko <b>errezel</b> bat zeharkatu zuten...	103
<b>fardel</b> paketea	...ez zen ohartu ezta metroan zenbat jende geratzen zitzaizen aho zabalik begira ere, zamatuta baitzeuden forma arraroko <b>fardelez</b> ...	81
<b>farfaildun</b> brodatuak dituen	McGonagall andereñoak <b>farfaildun</b> musuzapia atera eta betaurrekoen azpian arin igurtzi zituen begiak.	17
<b>galarazi</b> eragotzi, oztopatu	Azkenean, guardiak pauso luzeak emanaz alde egin zuen, denbora <b>galarazten</b> zutenengatik gaizki esaka.	85
<b>gar-zuzi</b> suzko tortxa, lastargia	Harrizko hormak Gringottesekoak bezalako <b>gar-zuziek</b> argitzen zituzten.	105
<b>garaikur</b> trofeoa	<b>Garaikurren</b> gelan elkartuko gara, giltzaz itxi gabe egoten da beti.	140
<b>garatxo</b> arakaitza ( <i>verruqa</i> )	...benetan aztia bazen, zergatik ez zituen <b>garatxoz</b> betetako apo bihurtu trastelekuan itxi nahi izan zuten bakoitzean?	57
<b>gizonkote</b> gizontzarra, kankailua	<b>Gizonkote</b> handia zen, ia batere leporik gabea, baina bibote handikoa.	7
<b>gogaikarri</b> jasanezina, aspergarria, astuna	—Badakit —xuxurlatu zion Harryk beiraz bestaldetik, nahiz eta ez egon ziur sugeak entzuten zion ala ez—. Benetan <b>gogaikarria</b> izan behar du.	30
<b>gogait eragin</b> aspertu, nazkatu	...ez zuen batere konpainiarik, egun osoan berari <b>gogait eragiteko</b> atzamarrez beira jotzen zuen jende inozoa izan ezik.	30
<b>gotor</b> trinkoa, blindatua	Hagriden ez zion utzi Harryri urrezko pertz <b>gotorrik</b> erosten (“Zure zerrendan ezta, berun eta zinkezkoa esaten dau”), baina bai haztaga polit bat...	77
<b>hankalatraba</b> zangalatrau, hankalepo (makurt	Motorra ikaragarria zen, baina han <b>hankalatraba</b> eserita zegoen gizonaren aldean jostailua zirudien.	19
<b>harmaila</b> grada, maila	<b>Harmaila</b> batzuetan gora joan eta haritzeko ate handiaren inguruan bildu ziren.	104
<b>hasperen egin</b> hats beherapena, suspirioa	Ikusgarria! Harryk bat batean goitik behera egin zuen zuzenean, eta jendeak harridurazko <b>hasperenak eginez</b> goraka eta aupaka hasi ziren.	201



<b>haztaga</b> balantza	Hagridek ez zion utzi Harryri urrezko pertz gotorrik erosten (...), baina bai <b>haztaga</b> polit bat, edabeen osagaiak pisatzeko...	77
<b>hegaldaka</b> hegaz	Milaka saguzar paretetatik eta sabaitik abiatu ziren hegaldaka, beste mila bat mahai gainean zebiltzan bitartean.	156
<b>hertsatzaile</b> konstrikziozkoa, estutzen duena	Brasilgo boa <b>hertsatzailearen</b> ihesak inoizko zigorrik luzeena ekarri zion Harryri.	33
<b>heskai</b> setoa, landarezko hesia	Haizexka batek astindu zituen Privet Driveko <b>heskai</b> ongi moztuak; isilik eta txukun zegoen kalea tinta-koloreko zerupean.	21
<b>hirugihar</b> beikona, urdaia	Harry <b>hirugiharrari</b> buelta ematen ari zenean, osaba Vernon sartu zen sukaldera.	24
<b>hontz</b> mozoloa, gaueko txori harrapak	... <b>hontzak</b> gainetik ziztu bizian igarotzean, hatzez seinatu eta aho zabalik haiei begira geratzen ziren.	9
<b>huntz</b> landare igokaria ( <i>hiedra</i> )	...eta ontzitxoek <b>huntzezko</b> errezel bat zeharkatu zuten, zulo zabal bat ezkutatzen zuena labarraren aurpegian.	103
<b>igarkizun</b> asmakizuna	Hau ez da magia... hau logika da... <b>igarkizun</b> bat. Aztirik handienetako askok ez dute izan logika-izpirik, hementxe geratuko ziren betiko mugitu ezinik.	257
<b>ilar</b> indaba edo <i>guisante</i>	...ontziak <b>ilar</b> gurineztatuekin, zilarrezko ontziak saltsa lodi eta alimentu handikoarekin.	183
<b>ile-xerlo</b> ile luzeko sortatxoa ( <i>mechón</i> )	<b>Ile-xerlo</b> beltz-beltz baten azpian, bekokian, forma bitxiko ebaki bat ikusi zioten, tximista bezalakoa.	19
<b>ilupaz</b> zerbait ganorabakoa, insustantzi	...bete itzazu gure buruak zerbait interesgarriaz, orain airez, akabatutako euliz eta <b>ilupaz</b> beteak daude eta.	117
<b>intxixu</b> aztia, belagilea	— Peeves da, <b>intxixu</b> bat —esan zien Percyk lehenengo urtekoei ahopetik, eta gero, ahotsa ozenduz, esan zuen—: Peeves, ager zaitez.	118
<b>intzirika</b> negar mainaka, aieneka	...urteak ziren ez zuela benetan negarrik egiten, baina bazekien aurpegia bihurritu eta <b>intzirika</b> egiten bazuen, nahi zuen guztia emango ziola amak.	26
<b>iradoki</b> sujeritu, gomendatu	—Egin hanka hautsi duzun itxurak — <b>iradoki</b> zion Hermionek.	196
<b>iragarri</b> aurretiaz esan	Planetek <b>iragarritakoaren</b> aurka jokatzeko ari zela esaten zion...	235
<b>irmo</b> gogor, tinko	“Ametsa izan zen”, esan zion bere buruari <b>irmo</b> .	60
<b>itaundu</b> galdetu	Sekula ez deitsozu zeure buruari <b>itaundu</b> zelan daukazu orbain hori bekokian?	55
<b>itsumustuan</b> arrapataka, presaka	Ron liburu-ilara batean zehar ibili eta liburuak <b>itsumustuan</b> ateratzen hasi zen apaletatik.	178
<b>izar uxo</b> izar iheskorak, izar lokak	...urrutiko ikusleek deitu didate esanez atzo agindu nuen euriaren ordez, <b>izar uxoak</b> izan dituztela bota ahala.	11
<b>izartsupe</b> izarrez betea, izarniatua	Beste aldean, mendi handi baten gainean, zeru <b>izartsupean</b> leihoak dir-dir zituela, gaztelu handi bat zegoen.	103
<b>jagole</b> zaindaria	—Arrazoi dozu, ez dot neure burua aurkeztu. Rubeus Hagrid naz, Hogwartseko Giltza eta Baso <b>Jagolea</b> .	48
<b>jaregin</b> soltatu, libratu	...orkatiletatik zintzilika nindukan goiko leiho batetik; amonaren ahizpa Enid-ek merenge bat eskaini zion eta oharkabea <b>jaregin</b> egin zidan.	115
<b>jatzuez</b> zaizkizue (bizk)	—Zerbait egun falta <b>jatzuez</b> oporretarako? —galdetu zion Hagridek.	177
<b>jazarle</b> persegidorea, atzetik segika doa	Elkarren pare parean joan ziren snitcharen bila...bazirudien <b>jazarle</b> guztioi ahaztu zitzaizela beren eginbeharra, airean zintzilika baitzeuden begira.	169
<b>jelatu</b> izoztua	Itsasoko bisuts eta euri <b>jelatu</b> sartzen zitzaizen lepotik behera eta haize hotz-hotzak jotzen zituen aurpegian.	44



<b>kaikutzar</b> tentel halakoa, inozo alena	orro bizian, eroak bezala, <b>kaikutzar</b> kirten horiek- esan zuen, motor batek aurrera hartu zienean.	28
<b>kalamastra</b> hondatua, destartalatua, zaindu g	Leku ospetsua izateko, oso ilun eta <b>kalamastra</b> zen.	66
<b>karabina</b> su-arma mota bat	...kaiola handi bat ere bazegoen, noizbait loro bat barruan izan zuena, Dudleyk eskolan <b>karabina</b> batez trukatu zuen arte...	38
<b>karraska-hots</b> zerbait apurtzearen soinua	<b>Karraska-hotsa</b> entzun zen haien atzean eta osaba Vernon sartu zen gelara irristaka.	47
<b>kasketaldi</b> amorrualdia, aldikada	...Dudley txikia, <b>kasketaldi</b> betean, gosaritako zerealak paretetara botatzen ari baitzen.	8
<b>kaxmir</b> artile finena, oso garestia	Harry alboratu egin zen, baina Ron ispiluaren aurrean zegoela, jada ezin zuen bere familia ikusi, Ron bakarrik bere <b>kaxmirrezko</b> pijamarekin.	189
<b>kemen</b> adorea, ausardia	Harryk ea ez zuen entzun Woodek <b>kemena</b> emateko bota harengaren hitz-erdirik, quidditcheko azkar jantzi eta bere Nimbus 2000 hartzen zuen bitartean.	199
<b>kiribilduta</b> kizkurtua, kirrutua	Lurrean zegoen <b>kiribilduta</b> , lozorroan, baina bat-batean esnatu zen besteak isilka hurbildu zitzaizkionean.	142
<b>kirioak dantzan</b> nerbioso, tentsioan	Harryri <b>kirioak dantzan</b> zebilzkion urdailean eta, ikusi ahal izan zuenez, Ron zurbil zegoen bere orezten azpian.	102
<b>kirten</b> heldulekua, palua	Seamus Finniganek zioenez, erratz <b>kirtenarekin</b> gainean landa hegan eman zuen bere haurtzarorik gehiena.	131
<b>koskadun</b> irregularra, irteguneeekin	...kobrezko ontzia ura berotzeko, saltxitxa-pakete zanpatu samar bat, su-pala, te-ontzia, zenbait katilu <b>koskadun</b> ...	49
<b>koskortsu</b> irtena, abultatua	...beste begi berde pare batzuk ikusi zituen, berea bezalako beste sudur batzuk, eta baita berak bezalakoxe belaun <b>koskortsuak</b> zeuzkan gizon zahar bat ere...	188
<b>kulunka</b> zabuka, alderoka	Gero, farol bat agertu zen <b>kulunka</b> ikasleen buru gainean eta Harryk ezaguna zitzaion ahotsa entzun zuen.	102
<b>kuzkurtu</b> bildu, makurtu eta batuta jarri	Harryk ahal zuen toki bigunena aurkitu behar izan zuen lurrean, eta hantxe <b>kuzkurtu</b> zen burusirik mehe eta zarpailsuenaren azpian.	45
<b>laga</b> utzi	Ez dozu, ba, usteko gurasoak ezer barik <b>laga</b> zinduezanik, ez?	61
<b>lakre</b> eskutitzak ixteko oreka	Gutun-azalari buelta ematean, eskua dar-dar, <b>lakrezko</b> zigilu gorri-morexka bat ikusi zuen...	36
<b>langa</b> trabesa, haga	...zuzen-zuzen joan behar duzue bederatzigarren eta hamargarren nasen arteko <b>langara</b> . Ez gelditu eta ez izan langa jotzeko beldurrik...	87
<b>latz</b> zakarra, desatsegina	Osaba Veronek, ahots <b>latzez</b> , esan zuen bere bizitzan sekula ez zela une hartan bezain harro sentitu.	34
<b>lausengatu</b> losintxa, gehiegizko alabantza	— <b>Lausengatu</b> egiten nauzu —esan zion Dumbledorek lasai—. Nik sekula izango ez ditudan ahalmenak zituen Voldemortek.	16
<b>lazgarri</b> beldurgarria, ikaragarria	Sugeak buruaz ezezkoa egiten zion bitartean, Harryren atzean oihu <b>lazgarri</b> batek salto eginarazi zien bie...	30
<b>lerde</b> adurra, ttua, txistua	Fangek Harryren belaunetan jarri zuen burua eta <b>lerdeaz</b> busti zizkion jantziak.	129
<b>letagin</b> betortza, hortz luzea ( <i>colmillo</i> )	Hiru aho lerdetsu, <b>letagin</b> horixketatik zintzilika hari lingirdatsuetan listua zeriela.	146
<b>letoi</b> kobre eta zink aleazioa	Ehun bat iratxo zeuden (...), libutukoteetan zirriborroak egiten, <b>letoi</b> ko balantzan txanponak pisatzen, begi-leiarrez harribitxiak ateratzen.	70
<b>lez</b> legez, bezala	—Esan neutsun <b>lez</b> , burutik egon behar da hemen osten saiatzeko —esan zion Hagridek.	70
<b>lirdingatsu</b> itsaskorra, likatsua	Lurrean upelak zeuden isurkari <b>lingirdatsuz</b> beterik, eta pitxerrak belarrekin; paretetan lerrotuta sustrai ihartuak eta hauts distiratsua...	77



<b>lizundu</b> hezetasunak janda, hondatua	...Harryk bi oheko logela batean igaro zuten gaua, hezetasunez <b>lizundutako</b> izara artean.	42
<b>lohitsu</b> lokaztua	Orduan, entrenamendu saio bereziki busti eta <b>lohitsu</b> batean, Woodek albiste txar bat eman zion taldeari.	195
<b>lozorroan egon</b> sakon lokartuta	Lurrean <b>zegoen</b> kiribilduta, <b>lozorroan</b> baina bat-batean esnatu zen besteak isilka hurbildu zitzaizkionean.	142
<b>mahuka</b> besoa, manga	Begietako jarioa jakaren <b>mahukan</b> lehortuz, Hagridek motor gainera igo eta motorra piztu zuen hankaz...	20
<b>marruskatu</b> zimurtu, lauskitu	—Afari bikaina ezta? —esan zion ahopean Ronek Harryri tapizaz beste aldetik—. Utikan, Scrabbers! Nire izarak <b>marruskatzen</b> ari da.	119
<b>matrailezur</b> baraila, masailezurra	Howartsen ez. Pare bat aldiz <b>matrailezur</b> batzuk apurtu dituzte, baina ezer okerragorik ez oraingoz.	153
<b>matxuratu</b> aberiatu	...esan zuen, <b>matxuratutako</b> eskailera mekanikoan gora igo eta dendaz beteriko kale zaratatsu batera irteten ziren bitartean.	65
<b>miazkatu</b> milikatu, txupatu	Hura ere ez zegoela txarra pentsatu zuen Harryk, poloa <b>miazkatu</b> eta gorila bati begira zegoen bitartean.	29
<b>mingarriro</b> modu krudelean	...saiatu zen kentzen baina <b>mingarriro</b> estutzen zuen... eta han zegoen Malfoy, berari barreka.	120
<b>mirespenez</b> txundituta, guztiz harrituta	—Bai, badakit hori —esan zion McGonagall andereñoak, suminduta eta aldi berean <b>mirespenez</b> .	16
<b>motots</b> koleta, moño	Ile beltza <b>motots</b> estuan bilduta zeukan.	14
<b>mozkote</b> potolatxoa, lodikotea	Malkin Andrea sorgin <b>mozkote</b> eta irribarretsua zen, dena malva-kolorez jantzita.	73
<b>mugurdi</b> masusta gorria ( <i>frambuesa</i> )	Harry isil-isilik egon zen Hagridek erosi zion izozkia (txokolate, mugurdi eta intxaur-zatiz egina) jan bitartean.	75
<b>musker</b> lagartoa	Beiraren atzean, mota guztietako <b>musker</b> eta sugeak narraska eta sigi-saga zebiltzan egur eta harrien gainean.	29
<b>muxar</b> zuhaitz animaliatxoa ( <i>lirón</i> )	Oraindino sakelan <b>muxar</b> -pare bat badodazala uste dot.	59
<b>muzinka</b> atsekabezko negar keinuak	—Ba-ba-barkatu —esan zion Hagridek Joseba- <b>muzinka</b> , motadun sudur-zapi handi bat atera eta aurpegia han ezkutatu—.	20
<b>nagi-nagi</b> emeki, motel	Haren erratzak gora eta gora segitzen zuen eta noraezean <b>nagi-nagi</b> oihan debekaturantz joan eta bistatik desagertu zen.	134
<b>narraska</b> arrastaka, herrestan	Beiraren atzean, mota guztietako musker eta sugeak <b>narraska</b> eta sigi-saga zebiltzan egur eta harrien gainean.	29
<b>negar-zotinka</b> hipaka, negar-muzinka	Neville burkoaren azpian negar-zotinka entzun zuen ordu luzeetan.	221
<b>olo</b> landare jangarria ( <i>avena</i> )	Aurpegia semaforoak baino bizkorrago pasatu zitzaion gorritik berdera. Eta ez zitzaion hala gelditu. Berehala zuen zuri grisaxka, <b>olo</b> -ahi zaharra bezala.	36
<b>orbain</b> ebakiondoa, zauri marka	—Bai —erantzun zion Dumbledorek—. Betiko izango du <b>orbain</b> hori.	19
<b>orezta</b> peka	Harryri kirioak dantzan zebiltzcion urdailean eta, ikusi ahal izan zuenez, Ron zurbil zegoen bere <b>orezten</b> azpian.	102
<b>orga</b> gurdia, karroa	Griphooken txistu jo eta burdinbidean <b>orga</b> txiki bat etorri zen ziztu bizian haiengana.	71
<b>oroikailu</b> oroitzeko gailua	Draco Malfoy Gryffindorrekoen mahai ondolik igaro eta <b>oroikailua</b> kendu zion eskutik.	133
<b>orpoz orpo</b> atzetik	Hagrid beraiengana etorri zen ilunpetatik, Fang <b>orpoz orpo</b> zuela.	225




<b>orro</b> oihu lazgarria, ozena	...Harryk txerri-buztan kiribildua ikusi zion, praketako zulotik kanpora irteten. Osaba Vernonek <b>orro</b> egin zuen.	58
<b>oturuntza</b> otordua, <i>luncha</i>	Ikasturte-hasierako <b>oturuntza</b> laster hasiko da, baina jangelan zeuen aulkietara Joan aurretik...	105
<b>ozpinduta</b> erretxinduta, garrastuta	—Hori entzun dogu —esan zuen Hagridek <b>ozpinduta</b> —.	229
<b>pertz</b> eltzea, lapikoa	Hagridek ez zion utzi Harryri urrezko <b>pertz</b> gotorrik erosten (“Zure zerrendan eztainu, berun eta zinkezkua esaten dau”), baina bai haztaga polit bat...	77
<b>pikortsu</b> bolatxoz betea	Garbi zegoen opariak askatuz etorri zela bidean, hark ere jertse <b>pikortsu</b> bat baitzekarren besoan; Fredek hartu zion.	182
<b>pot egin</b> amore eman, errenditu	...osaba Vernonen adorea <b>pot egin</b> zuen berriro; paretaren kontra kikildu eta mutu geratu zen.	56
<b>purrust egin</b> marmarka esan / burla eginez	—Berak joan gura badau, zu lako muggletzar batek ez deutso galaraziko — <b>purrust egin</b> zion Hagridek—.	58
<b>puxtarr</b> kanika	Irrika handiz ireki zuen eta beirazko bola bat erakutsi zien, <b>puxtarr</b> handi baten tamainakoa, ke zuriz betea zirudiena.	132
<b>sakan</b> sakonunea, zadorra	—Zera ari dira esaten —jarraitu zuen—, bart gauean Voldemort Godric-eko <b>Sakanean</b> azaldu zela.	16
<b>samur</b> biguna, leuna	Erorikoa <b>samurra</b> da, egin salto!	250
<b>sarkor</b> barneraino sartzen dena	Odola gatzatzeko moduko txilio <b>sarkor</b> batek hautsi zuen iluntasuna: liburua garrasika hari zen!	186
<b>sigi-saga</b> zeharka-meharka, zig-zag eran	Soroak eta alor landuak desagertuak ziren. Orain basoak ageri ziren, ibaiak <b>sigi-saga</b> eta muino berde ilunak.	96
<b>so egin</b> begiratu, begitu	Arreta handiz <b>so egin</b> zion Harryri, honek bekokian ubelduta zeukan orbainetik begirik kendu gabe.	232
<b>sorgortuta</b> mugitu ezinik, paralizatuta	Harryk Malfoy, Crabbe eta Goyleren garaipen aurpegiak ikusi zituen, bera <b>sorgortuta</b> McGonagall andereñoaren atzetik zihoan bitartean.	136
<b>tapa-tapa</b> kolpe txikitxoekin	Hatzekin bolantea <b>tapa-tapa</b> jo zuen, eta inguruan zeuden arrote haletako taldetxo batera joan zitzaizkion begiak.	9
<b>tarrapatan</b> arrapaladan, arineketan	Eta Firenzek <b>tarrapatan</b> alde egin zuen. Harryk ahal bezain ongi heltzen ziona, zuhaitz artera sartu ziren, Ronan eta Bane atzera utzita.	233
<b>toteltasun</b> hitx egiteko zailtasuna	...irribarre egiten zion adore emateko, eta Ronek jendeari esaten zion ez barre egiteko Quirrelen <b>toteltasunari</b> .	206
<b>tranpol</b> zoruko atetxoa	—Ez, lurraren gainean ez, <b>tranpol</b> baten gainean. Zerbait zaintzen ari zen, noski.	147
<b>trufa</b> burla	—Nork idatzitako dizu, ba, zuri? —erantzun zion osaba Vernonek <b>trufaz</b> , gutuna esku batez zabaldu eta begiratu bat emanez.	36
<b>trumilka</b> piloan, samaldan, tropelean	...burura <b>trumilka</b> zetozkion galderak beretzat gorde behar izan zituen, ordea, eta sabairaino txukun pilotuta zeuden milaka kaxa estuei begira jarri zen.	78
<b>tupust egin</b> estropezu egin, behaztopa egin	Osaba Vernonek ia <b>tupust egin</b> zuen aurreko autoaren kontra.	28
<b>txabusina</b> bata	...izan ere, Nevillek minutu bat bazeraman Harryren <b>txabusinaren</b> mahukatik tiraka.	146
<b>txigortu</b> tostatua, errea	—Ogi <b>txigortu</b> puska bat gutxienez —lausengatu zuen Hermionek.	166
<b>txilio</b> oihua, garrasia	Bat-batean beldurrezko <b>txilio</b> bat egin eta Naville lasterka abiatu zen...	144
<b>txinparta</b> pindarra, txispa	Doministiku egin zuen. <b>Txinparta</b> -pare bat atera zitzaion muturretik.	212





<b>txor-txor</b> hitza eta pitz, berba eta berba	Gryffindorreko lehen urtekoak Percyren atzetik joan ziren, <b>txor-txor</b> ari zen jendetzaren artean, jangelatik irten eta marmolezko eskailetertan gora.	118
<b>txunditu</b> liluratu, harritu	Hargidek atzamarrak bere iletik pasatu zituen, begirada <b>txunditua</b> Harryrengan josita.	50
<b>ukabil</b> esku itxia ( <i>puño</i> )	Hagridek bere <b>ukabil</b> erraldoia altxatu eta hiru aldiz jo zuen gazteluko atea.	104
<b>ukatu</b> ezetz esan	Harry pentsatzen zuen Snapek ez ziola <b>ukatuko</b> , beste irakasle batzuk entzuten ari baziren.	165
<b>uluka</b> uhurika, garrasika	Goylek, minez <b>uluka</b> , biraka zerabilen Scabbers, eta azkenean arratoiak airean irten eta leihoa jo zuen.	101
<b>urratu egin</b> tarratada egin	Osaba Veronek faktura <b>urratu egin</b> zuen, purrust egin atsekabez eta buelta eman zion postalari.	36
<b>urtsu</b> garbia, kristalezkoa bezalakoa	...begi urdin <b>urtsuak</b> zituen eta ile hori ugaria, buru sendo ea lodian liso-liso eroria.	24
<b>usnatu</b> usaindu	Ea, <b>usnatu</b> hor polit horrek, zokoren batean gordeta egon litezke eta.	143
<b>utikan</b> alde hemendik	— Afari bikaina ezta? —esan zion ahopean Ronek Harryri tapizaz beste aldetik—. <b>Utikan</b> , Scabbers! Nire izarak marruskatzen ari da.	119
<b>xarma</b> lilura, enkantua	...zuk ere, aurrez beste askok bezala, Erisedeko ispiluaren <b>xarmak</b> aurkitu dituzu.	191
<b>xigorki</b> janari erregosia	Harryri <b>xigorki</b> , koko, babarrun egosi, marrubi, curry, belar, kafe eta sardinen gustukoak suertatu zitzaizkion.	96
<b>xuxurlatu</b> ahapeka esan, isilean mintzatu	— Ama? —esan zuen <b>xuxurlan</b> — Aita?	188
<b>zabar</b> baldarra, narrasa, ganorabakoa	Harry maitea (zioen, oso idazkera <b>zabarrak</b> ): Badakit bariku arratsaldea libre dozuna. Hortaz, gura zeunke tea hartzera etorri hirurak inguruan?	125
<b>zabuka</b> kulunka, alderoka	Gnomoak <b>zabuka</b> egin zuen eta hantxe bertan zerraldo erori zen ahots bera...	159
<b>zakur-biskot</b> txakurren gaileta	...idazmahaian sakelak husten hasi zen, eskukada bat <b>zakur-biskot</b> iratxoaren zerbaki-liburuaren gainean barreiatuz.	70
<b>zaldar</b> aurpegiko, azaleko garua	Snapek binaka jarri zituen denak eta <b>zaldarrak</b> sendatzeko edabe simple bat egiten hasi ziren.	127
<b>zamat</b> kargatuta	...ez zen ohartu ezta metroan zenbat jende geratzen zitzaien aho zabalik begira ere, <b>zamatuta</b> baitzeuden forma arraroko fardelez...	81
<b>zarakatsu</b> ugerdia, zikina	...belaun <b>zarakatsuko</b> gaztetxo edo zahar burusoilak izan, bete itzazu gure buruak zerbait interesgarriaz...	117
<b>zartatu</b> pitzatu, arrakaldu	Ate gainean urre-koloreko letra <b>zartatuak</b> zeuden.	78
<b>zerraldo</b> hilik bezala	Ustekabean harrapatuta, Harry <b>zerraldo</b> erori zen zementuzko zorura.	31
<b>zeru-ertz</b> ortzi-muga, horizontea	Berant arratsaldeko eguzkia <b>zeru-ertzean</b> behean zegoen; Harry eta Hagrid itzuli egin ziren Diagon kalekkan aurrera...	81
<b>ziega</b> leotza, mazmorra	Orduan, Hermione zutitu egin zen, eskua <b>ziegako</b> sabairantz luzatuta.	127
<b>zintzur</b> eztarria, sama	Une batez zorabiatu egingo zela ematen zuen. <b>Zintzurari</b> heldu zion eta itobeharreko hotsa egin zuen.	37
<b>zirkinik ez</b> mugimendutxorik ere ez	<b>Zirkinik ere ez</b> zuen egin ondoko kalean auto batek, danba!	13
<b>zirrara</b> emozioa, sentipen bizia	...erabateko <b>zirrarak</b> , goitik behera abiatu zen ziztu bizian urrezko arrastoaren atzetik.	169



<b>zirtaka</b> txinpartaka	Beheko sura makurtu zen; besteek ezin zuten ikusi zertan ari zen, baina berehalaxe atzera egin zuenean <b>zirtaka</b> ari zen sua.	49
<b>zoko</b> txokoa, bazterra	Ea, usnatu hor polit horrek, zokoren batean gordeta egon litezke eta.	143
<b>zoli</b> fina, ozena	Aitzitik, irribarre zabala azaldu zen haren aurpegian, eta handik pasatzen zirenei atentzioa ematen zien ahots mehe eta <b>zoliaz</b> esan zion...	10
<b>zurbil</b> margula, kolorgea	Malkin andrearen jantzi-dendan ikusitako mutiko <b>zurbila</b> zen.	100
<b>zurda</b> animalien ile latz sorta	—Zuk, Potter, zergatik ez diozu esan <b>zurdarik</b> ez botatzeko?	128
<b>zurrunga</b> lotan egin daitekeen soinua	Harry oheratu zenean galdera bera zuen buruan jirabiraka. Neville ozen ari zen <b>zurrungaka</b> , baina Harryk ezin zuen lo egin.	166
<b>zurrapaki</b> izotz zatizko edaria ( <i>sorbete</i> )	Limoizko <b>zurrapaki</b> bat. Muggleen gozoki horietako bat da, oso gogoko dut.	15
<b>zuzi</b> lastargia, suzko tortxa	Harrizko korridore estu batean zeuden, <b>zuziz</b> argituta.	71